



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2000ko urtarrilaren 31n

10 ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru Lege Proposamenak:

—Zigiluetan eta beste hainbat posta-gaitan Estatuko hizkuntzak erabiltzeari buruzko Lege proposamena, «Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentuko Taldeak aurkeztua (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, Mozioak eta Adierazpen Politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, toki inbertsioei buruzko urte anitzetarako plan bat egin dezan, «Euskal Herritarrok» Parlamentuko Taldeak aurkeztua (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez Estatuko Gobernuari exijitzen zaio Nafarroan daukan ordezkaria kargutik ken dezala, «Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua» Parlamentuko Taldeak aurkeztua (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da “titulurik gabeko” zaharberritzaileen egoerari irtenbidea eman diezaion, «Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua» Parlamentuko Taldeak aurkeztua (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan ekonomiko bat aurkez dezan Audenak daukan A-15aren emakida berreskuratzeko ekarriko lukeen gastuari buruz, «Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentuko Taldeak aurkeztua (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere poza azaltzen du Diputatuen Kongresuko Mahaiak presaz tramitatuko duelako Atzerritarrei buruzko Legea aldatzeko proiektua, «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Atzera bidalitako mozioa (9. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Lanbide Heziketako programetan ari diren ikasle minusbaliatuei buruzko galdera, M^a Isabel Arboniés Bermejo foru parlamentari andreak egina (10. or.).

—Gizarte Ongizate Departamentuak oinarritzko errenta emateari buruzko galdera, M^a Isabel Arboniés Bermejo foru parlamentari andreak egina (10. or.).

- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko lanpostuak betetzeko deialdiak direla-eta, deialdietatik kanpo eginiko zerbitzu-eginkizun, luzapen eta abarrei buruz buruzko galdera, «Euskal Herritarrok» Parlamentuko Taldeak egin (11. or.).
- Aparteko orduengatik Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan eginiko ordainketei buruzko galdera, «Euskal Herritarrok» Parlamentuko Taldeak egin (12. or.).
- Produktibitate osagarri gisara Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan eginiko ordainketei buruzko galdera, «Euskal Herritarrok» Parlamentuko Taldeak egin (13. or.).
- Fiteroko monasterioko liburutegia eraberritzeko obrei buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentari jaunak egin (13. or.).
- Kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren sistema berria adjudikatzeko moduari buruzko galdera, José Andrés Burguete Torres foru parlamentari jaunak egin (14. or.).
- Gordailuetan dauden zenbatekoak eta zein banku-entitatetan dauden itauntzen duen galdera, José Andrés Burguete Torres foru parlamentari jaunak egin (15. or.).
- Beriango udalerrian lanean hasi zenetik ISN enpresak sortutako hondakin solidoei buruzko galdera, Fernando Viedma Molero foru parlamentari jaunak egin (15. or.).
- Ospitaleak eta osasun zerbitzu nahiz zerbitzu soziosanitario publikoak kudeatzeko fundazioen formula juridikoari buruzko galdera, M^a Isabel Arboniés Bermejo foru parlamentari andreak egin (16. or.).
- Tafallako belodromoa estali eta Mairagako Mankomunitateko udal eta kontzejuen kirol azpiegiturak hobetu edo sortzeari buruzko galdera, José Andrés Burguete Torres foru parlamentari jaunak egin (17. or.).
- Errepide sareko puntu beltz eta arriskutsuak desagertarazteari buruzko galdera, José Andrés Burguete Torres foru parlamentari jaunak egin (18. or.).
- Tuterako ospitaleko larrialdi zerbitzua gainezka egon izanari buruzko galdera, «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentuko Taldeak egin (19. or.).

G SAILA:**Txostenak, Deialdiak, eta Parlamentuko Informazioa:**

- 2000ko ekitaldian foru parlamentariak eta Parlamentuko taldeek jasoko dituzten ordainsariak (20. or.).
- «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentuko Taldearen izen aldaketa (20. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Zigiluetan eta beste hainbat posta-gaitan Estatuko hizkuntzak erabiltzeari buruzko Lege proposamena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

«Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, eta Espainiako Konstituzioaren 87.2 artikulua babesean, «Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentuko Taldeak zigiluetan eta beste hainbat posta-gaitan Estatuko hizkuntzak erabiltzeari buruzko Lege proposamena aurkeztu du Nafarroako Parlamentuan.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145 eta 204. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Bozemaileen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena. Zigiluetan eta beste hainbat posta-gaitan Estatuko hizkuntzak erabiltzeari buruzko Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkarian agitara dadin agintzea.

Bigarrena. Lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2000ko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Zigiluetan eta beste hainbat posta-gaitan Estatuko hizkuntzak erabiltzeari buruzko Lege proposamena

ZIOEN AZALPENA

Konstituzioko 3. artikulua xedatzen du gaztelania dela Estatuko hizkuntza ofiziala, baina Konstituzioko arau horrek berak dio Espainiako gaineko hizkuntzak ere ofizialak izanen direla autonomia erkidegoetan, estatuetan ezarritakoaren arabera, eta, gainera, azpimarratzen du Estatuko hizkuntz aniztasuna bereziki errespetatu eta babestuko dela.

1999ko martxoaren 9ko bilkuran, Diputatuen Kongresuak gehiengo zabalaz onetsi zuen Kataluniako Parlamentuaren lege proposamen bat aintzat hartzea; hain zuzen, Estatuko hizkuntza ofizialak euroaren biletetan eta txanponetan erabiltzeari buruzko lege proposamena. Eta apirilaren 13ko bilkuran, gehiengo zabalaz orduan ere, beste lege proposamen bat aintzat hartzea onetsi zuen: pasaporteetan eta nortasun agirietan Espainiako Estatuko hizkuntza ofizialak sartzeari buruzko lege proposamena. Bi erabaki horiek erakusten dutenez, gaztelania ez beste hizkuntza ofizialak ere ezarri nahi dira Estatuko sinboloetan; politikoen nahi hori bat dator Konstituzioak agindutakoarekin; alegia, hizkuntz aniztasuna errespetatu eta babestu beharrekin.

2000ko urtarrilaren 1ean ospatuko da Espainiako lehen posta-zigilu modernoaren 150. urteurrena. 149 urtetan, gaztelaniaz landa, Espainiako beste hizkuntza batean osorik idatzitako zigilurik ez du kaleratu Espainiako Estatuak, eta 30 zigilu besterik ez du kaleratu (ehuneko 0,83) euskaraz, katalanez edo galegoz hitzen bat edo beste duenik. Baina egoera oso bestelakoa da Europako eta munduko beste estatu askotan, zigiluak eta askotariko posta-gaiak kaleratzen baitituzte, maiz, herritarrek darabiltzaten hizkuntza guztietan. European, hala egiten da Belgikan, Danimarkan, Finlandian, Irlandan, Norvegian eta Suitzan.

Nazioarteko aurrekari horiek eta Konstituzioaren agindua –hizkuntz aniztasuna errespetatu eta babestu beharra– kontuan hartuz, arrazoizko proposamena da gaztelaniaz gain Estatuko beste hizkuntzak ere Espainiako zigiluetan sartzeari. Txanponen eta Zigiluen Fabrika Nazionalak 50 zigilu berri kaleratzen ditu urtero, eta, beraz, posible da hizkuntza horiek guztiak agertzea segituan, era egokian, Estatuaren sinbolo honetan.

Hizkuntzen erabilerari buruzko proposamen honek ez ditu baztertzen autonomia erkidegoetako estatutuen arabera ofizialak ez diren hiru hizkuntzak: Vall d'Arango okzitaniarra, asturierara eta

aragoiera; izan ere, Katalunia, Asturias eta Aragoiko autonomia estatutuek aldarrikatzen duten legez, horiek ere merezi dute errespetua eta babesa. Bestalde, gogoan izan behar da, Kataluniako Parlamentuak onetsitako lege baten arabera, Vall d'Aranen ofiziala dela bertako hizkera (okzitanieraren aldaera).

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuak ondorengo lege proposamena aurkezten du Diputatuen Kongresuaren Mahaian.

Lehen artikulua.- Aurrerantzean euskaraz, katalanez eta galegoz ere jaulki eta kaleratu beharko dira Txanponen eta Zigiluen Fabrika Nazionalak (FNMT) jaulkitako posta-zigiluak, frankeo aldakorreko zigilu automatikoak, posta-etiketak, zerbait ospatzeko diren posta-etiketak, posta-

lak, posta-txartelak, aerogramak, luxu-probak, ospakizunei buruzko proba ofizialak eta beste edozein posta-gai. Baina hori ez da eragozpen izanen aipatutako horiek asturieraz, aragoieraz eta okzitanieraz jaulki eta kaleratzeko, Estatuko eleaniztasunarekin bat.

Bigarren artikulua.- Posta-zigilu berriak eta beste posta-gai guztiak aurkeztean egiten den publizitate instituzionalak berariaz aipatu beharko du Estatuko eleaniztasuna islatzearen euskara, katalana eta galegoa erabili direla.

Hirugarren artikulua.- Lege honek indarra hartu eta sei hilabete baino lehen sartu beharko dira gaztelania ez beste hizkuntzak Espainiako zigiluetan eta gainerako posta-gai guztietan.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, toki inbertsioei buruzko urte anitzetarako plan bat egin dezan

«EUSKAL HERRITARROK» PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

«Euskal Herritarrok» Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, toki inbertsioei buruzko urte anitzetarako plan bat egin dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak emendakinek aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2000ko urtarrilaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

"Euskal Herritarrok" Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babespean, ondorengo mozioa aurkeztu du Osoko Bilkuran eztabaidatu dadin.

Azpiegituretako eta zerbitzuetako obren kofinantziazioari dagokionez, Nafarroako Gobernuak eta toki entitateek sakondu egin dute planifikazio

eta objetibazio bidean. Ez da bide hori eten behar; are gehiago, indartu beharra dago.

Toki entitateek behar besteko aurrerapenez jakin behar dute eskatutako jarduketatik zein sartu ahal izanen dituzten legegintzaldi horretako inbertsio programetan eta zein ez; hori jakin ahal izateko eskubidea galdatzen dute.

Era berean, toki entitateek jakin beharra daukate zein diren jarduketak, dirulaguntzak emateko zer parametro erabiliko diren eta Nafarroako Gobernuak zer lehentasun-baremori jarraiki lagundu nahi duen horien garapenean.

Horregatik guztiagatik aurkezten du "Euskal Herritarrok" Parlamentuko Taldeak honako erabaki proposamena:

Nafarroako Gobernuak, sei hilabeteko epean, toki inbertsioei buruzko urte anitzetarako plana igorriko dio Biltzarrari. Planaren helburua izanen da herrietako obrak planifikatu, hautatu eta programatzea, bai Nafarroako Gobernuak eta toki entitateek elkarrekin finantziatuko dituzten obrak bai Foru Komunitateko administrazioak osorik finantziatzekoak; hor sartuko dira, orobat, Nafarroako Gobernuko departamentuek kudeatu behar dituzten obrak, toki azpiegiturei buruzko hiru urtetarako planetan agertzen ez direnak.

Iruñean, 2000ko urtarrilaren 5ean

Bozeramailea: Joxe Fernando Barrena Arza

Mozioa. Horren bidez Estatuko Gobernuari exijitzen zaio Nafarroan daukan ordezkaria kargutik ken dezala

«IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA» PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

«Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua» Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: “Mozioa. Horren bidez Estatuko Gobernuari exijitzen zaio Nafarroan daukan ordezkaria kargutik ken dezala”.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak emendakinek aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2000ko urtarrilaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

“Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babespean, ondorengo mozioa aurkeztu du Osoko Bilkuran eztabaidatu dadin.

Urtarrilaren 2an, Beriainen, guardia zibilek era basatian eta neurritz kanpoko indarraz jardun zuten kontzentrazio baketsua egiten ari ziren herritarren aurka. Hauek A-15 autobidea doakoa izatea eskatzen zuten, eta, gainera, N-121 errepi-

deak dituen arazoei –trafiko askotxo eta arrisku handia– irtenbidea ematea.

Estatuak Nafarroan dituen segurtasun indarren jarduna dela eta, Gobernuaren ordezkaria da erantzule politiko nagusia, eta, beraz, kargu horrek hartu behar bere gain gertakari hauen erantzukizun politikoa, alegia, guardia zibilaren jardunak neurritz kanpoko eta funsgabeko indarkeria ekarri izanaren erantzukizuna.

Horregatik, “Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua” Parlamentuko Taldeak eskatzen du Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuran ones dadila ondorengo erabaki proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernuari exijitzen dio Nafarroan daukan ordezkaria kargutik ken dezala, ezen guardia zibilek era basatian eta neurritz kanpoko indarraz jardun baitzuten kontzentrazio baketsua egiten ari ziren herritarren aurka; hauek A-15 autobidea doakoa izatea eskatzen zuten, eta, gainera, N-121 errepi-deak dituen arazoei –trafiko askotxo eta arriskua handia– irtenbidea ematea.

2. Polizi egintza horren biktima izan diren herritarrekiko elkartasuna agertu nahi du Nafarroako Parlamentuak eta adierazi, haien alde dagoela.

3. Erabaki hau ondorengoei igorriko zaie: Beriaingo Udalari, Estatuko Gobernuko Barne Ministerioari.

Iruñean, 2000ko urtarrilaren 10ean

Bozeramailea: José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da “titulurik gabeko” zaharberritzaileen egoerari irtenbidea eman diezaion

«IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA» PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

«Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua» Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: “Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da “titulurik gabeko” zaharberritzaileen egoerari irtenbidea eman diezaion”.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Hezkuntza eta Kultura Batzordean burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2000ko urtarrilaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

"Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduak xedatuaren babespean, ondorengo mozioa aurkezten du, Hezkuntza eta Kultura Batzordean eztabaidatu eta bozketa egiteko.

Foru Komunitatean zein atzerrian, artelanak kontserbatzeko eta zaharberritzeko lanetan aritu izan diren Nafarroako zaharberritzaile profesionalak (batzuk urte asko eman dituzte lan horretan) kezkatuta daude, eta kezka hori zabalduta egin da. Beraz, beharrezkoa da artista eta artisau profesional hauen talde txikia aintzat hartzea, aitortu egin behar baitaie bai urtetan zehar eskuratutako gaitasuna bai kalitate egiaztatua daukaten hainbeste lanen bidez frogatutako profesionaltasuna.

Zaharberritzea espezialitateko diplomatura eta lizentziatura 1991n hasi zen. Ikasketa horiek ezarri aurreko arteen eta lanbideen eskoletan edo lantegietan ikasitako profesionalek ezin dute parte

hartu Bianako Printzea Erakundearen bidez egiten diren lanetan, alegia, ondasun higigarriak kontserbatzeko eta zaharberritzeko lanetan; izan ere, ez dute betetzen uztailearen 13ko 253/1999 Foru Agindua ezarritako baldintza, hots, Arte Ederretako titulu akademikoa izatea –Zaharberritzea espezialitatekoa.

IUN/NEB Taldeak galdera bat egin zion Gobernuari aurreko urteko azaroaren 26an. Jakin nahi genuen ea Nafarroako Gobernuak ba al zuen asmorik Zaharberritzea espezialitatea sortu aurretik ikasi eta lan egin duten zaharberritzaileei gaitasuna aitortzeko prozesuari ekiteko. Nafarroako Gobernuak “ez” erantzun zuen, abenduaren 27an; beharkizun hori beste erkidego batzuetan ere eskatzen dutela eta, gainera, beharrezkoa dela lanbide kualifikazioa exijitzea, baina gaitasun hori ederki asko frogatzen dute curruculum bikain eta luzea aurkezten duten zaharberritzaileek, administrazio publikoarentzat berarentzat eta ospe aitortua duten nazioarteko erakundeentzat egindako lanak aipatzen dituztenek.

Horregatik guztiagatik aurkezten du IUN/NEB Parlamentuko Taldeak ondorengo erabaki proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, “titulurik gabeko” zaharberritzaileen gaitasun profesionala aitortzeko prozedura bat ezar dezan, espezialitate horretako titulazio akademikoa sortu aurretik lanbide honetan jardun dutenen egoerari irtenbidea ematearren.

2. Eta, horren ondorioz, Nafarroako Gobernuak 253/1999 Foru Agindua alda dezala, ezarritzen den prozeduraren bidez gaitasuna aitortu ondoren, zaharberritzaileek Bianako Printzea Erakundearen eskura jarri ahal dezaten artelanak kontserbatzeko eta zaharberritzeko lanetan lortutako ezagutza aberatsa eta esperientzia.

Iruñean, 2000ko urtarrilaren 14an

Bozeramailea: José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan ekonomiko bat aurkez dezan Audenasak daukan A-15aren emakida berreskuratzeak ekarriko lukeen gastuari buruz

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA» PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

«Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan ekonomiko bat aurkez dezan Audenasak daukan A-15aren emakida berreskuratzeak ekarriko lukeen gastuari buruz".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak emendakinek aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2000ko urtarrilaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

"Nafarroako Demokraten Elkargunea" Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua babestean, ondorengo mozioa aurkezten du Osoko Bilkuran tramitatzeko.

Orain dela gutxi, eztabaida publikoa piztu da A-15 autobidearen bidesaria kentzeko, eta eztabaida horrek atzera bueltarik ez duen egoera batera eroan gaitu. Hautetsien eta autobidearen erabiltzaileen eskaerak direla medio, aintzat hartu dira A-15a doako bihurtzeko helburua duten parlamentu ekimen batzuk. Neurri hori hartu aurretik, jakina, Estatuak Audenasa enpresan duen

% 50eko partaidetza erosi egin behar da, enpresa osoa Nafarroako Gobernuarena izan dadin.

Autobidea berreskuratzeak, gure ustez, zenbait onura ekarriko lituzke. Hasteko, N-121 errepi-deko puntu beltzak hobetzeko aurreikusi diren milioiak aurreztea (Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren arabera, 6.000 milioi baino gehiago lirateke). Gainera, hein handi batean, Iparr-hegoa ardatzeko komunikazioak hobetzen lagunduko luke, eta Foru Komunitatearen garapen bateratuago eta orekatuago baten alde egingen luke.

Komunikabideetan, Nafarroako Gobernuko arduradunen adierazpenak agertu dira: Foru Ogasunari honenbesteko edo hainbesteko gastua ekarriko lioke emakida berreskuratzeak. Aipatutako zenbatekoek, egia esan, ez dute honelako arazoetan eskatzen den zorrozatasuna.

Horregatik guztiagatik aurkezten da Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuran ondorengo erabaki proposamena:

1. Nafarroako Gobernua premiatzen da, hila-beteko epean, dagokion batzordean azterlan ekonomiko bat aurkez dezan gai honi buruz: Audenasaren emakida berreskuratzeak zenbateko gastua ekarriko lioke Foru Ogasunari?

2. Nafarroako Gobernua premiatzen da, Estatu arduradunekin harremanetan jar dadin, Audenasaren kapitaletik Estatuarena den % 50a eskuratu ahal izateko.

Iruñean, 2000ko urtarrilaren 17an

Foru parlamentaria: José Andrés Burguete Torres

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere poza azaltzen du Diputatuen Kongresuko Mahaiak presaz tramitatuko duelako Atzerritarrei buruzko Legea aldatzeko proiektua

ATZERA BIDALITAKO MOZIOA

«Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere poza azaltzen du Diputatuen Kongresuko Mahaiak presaz tramitatuko duelako Atzerritarrei buruzko Legea aldatzeko proiektua”.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, «Socialistas

del Parlamento de Navarra» Parlamentuko Taldeak aurkeztu zuen mozioa atzera bidali duela jakintun dagolea adieraztea erabaki du. Mozio hori 1999ko abenduaren 20ko 28 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko urtarrilaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

F saila:
GALDERAK

Lanbide Heziketako programetan ari diren ikasle minusbaliatuei buruzko galdera

M^a ISABEL ARBONIÉS BERMEJO FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, M^a Isabel Arboniés Bermejo foru parlamentari andreak Lanbide Heziketako programetan ari diren ikasle minusbaliatuei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko urtarrilaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

María Isabel Arboniés Bermejok, "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentuko

Taldeari atxikitako foru parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaiten.

1) % 33 eta % 65 bitarteko minusbaliotasuna duten 18 urte baino gehiagoko zenbat ikasle ari dira, Nafarroako ikastetxe publikoetan eta pribatuetan, lanbide heziketako programetan zein helburuara pasatzeko prestakuntza-programetan?

2) % 33 eta % 65 bitarteko minusbaliotasuna duten zenbat ikaslek bukatu dituzte hezkuntza programa horiek, LOGSE ezarri zenetik hona?

Iruñean, 1999ko abenduaren 30ean

Foru parlamentaria: M^a Isabel Arboniés Bermejo

Gizarte Ongizate Departamentuak oinarritzko errenta emateari buruzko galdera

M^a ISABEL ARBONIÉS BERMEJO FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, M^a Isabel Arboniés Bermejo foru parlamentari andreak 9. Gizarte Ongizate Departamentuak oinarritzko errenta emateari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko urtarrilaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

María Isabel Arboniés Bermejok, "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaiten:

Kontuan izanik, batetik, Nafarroako Gobernuak Gizarte Ongizate Departamentuak emandako erantzuna; izan ere, gutxienez % 33ko minusbaliotasuna eta gehienez % 65ekoa duten 18 eta 65 urte bitarteko pertsonen oinarritzko errenta –kotizazioerik gabeko pentsioaren antzeko zenbatekoa

duena– emateko irizpideei buruzko galdera egin zen; eta kontuan izanik, bestetik, Nafarroan halako 12.673 pertsona daudela.

Zentro okupazionalan eta eguneko zentroetan dauden pertsona onuradunak 784 baizik ez dira, Nafarroan. % 33 eta % 65 bitartekoentzako hezkuntza programetan ari diren 18 urtetik gorakoak, berriz, 160 inguru dirateke (Hezkuntzak ez du erantzun zehatzik eman).

Horregatik guztiagatik, ondokoen berri jaso nahi dugu:

1. 1999 urtean zenbait eskabide aurkeztu diren Gizarte Ongizate Departamentuan, gutxienez % 33ko minusbalotasuna eta gehienez % 65ekoa duten 18 eta 65 urte bitarteko pertsonak oinarriko errenta jasotzeko.

2. 1999 urtean, guztira, zenbat eskabide eman dituen ontzat Gizarte Ongizate Departamentuak, eta zein den galdera honetan aipagai diren minusbaliatuei emandako errenten zenbatekoa.

3. 58/99 Foru Aginduan ezarritako baldintzak betetzen ez dituen zenbat pertsonari eman zaion

ontzat eskabidea; baldintza horiek ondokoak ziren: zentro okupazional batera eta/edo eguneko zentro batera joaten delako ziurtagiria, lanbide heziketako programetan eta/edo helduarora pasatzeko prestakuntza-programetan ari delako ziurtagiria edo programa horiek egin izanaren ziurtagiria aurkeztea.

4. Aurreko galderan aipatutako foru aginduko baldintza horiek betetzen ez dituztelako, zenbat eskaera baztertu diren.

5. 58/99 Foru Agindua ez betetzeagatik aukera honetatik kanpo geratzen diren pertsonen laguntzeko, zer neurri hartzea pentsatu du Nafarroako Gobernuak?

6. Pentsatu al du Gobernuak legedia berrikus-tea, hala Nafarroako % 33 - % 65 bitarteko minusbaliatuen talde osoari oinarriko errenta eman ahal izateko?

Iruñean, 1999ko abenduaren 30ean

Foru parlamentaria: M^a Isabel Arboniés Bermejo

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko lanpostuak betetzeko deialdiak direla-eta, deialdietatik kanpo eginiko zerbitzu-eginkizun, luzapen eta abarrei buruz buruzko galdera

«EUSKAL HERRITARROK» PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, «Euskal Herritarrok» Parlamentuko Taldeak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko lanpostuak betetzeko deialdiak direla-eta, deialdietatik kanpo eginiko zerbitzu-eginkizun, luzapen eta abarrei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko urtarrilaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

"Euskal Herritarrok" Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babespean, hurrengo galderak egin ditu idatziz erantzun diezazkieten:

Azken aldi honetan Nafarroako Gobernuak zenbait deialdi egin ditu, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko lanpostuak betetzeko. Horren ondorioz, eskatzen dugu azaltzeko zer zerbitzu-eginkizun (eta luzapen), atxikipen edo lekualdatze izan diren egindako deialdi publikoetatik kanpo, 1995eko urtarrilaren 1etik gaur arte. Kasu guztietan ondorengo datuak eman beharko dira:

- Ukitutako langilearen lanpostua.
- Langilearen berezko lantokia.
- Langilearen destinoko lantokia.
- Zerbitzu-eginkizunak edo atxikipena eskatu duen pertsona.
- Hori justifikatzen duten arrazoiak.
- Onespina ematen duen organoa.
- Zer aurreikuspen egiten den, egoeraren iraupena dela eta.

– Langilearen guztizko ordainsarien aldaketa dakarren ala ez, eta, baiezkoan, zer aldaketa izan den eta zein kontzeptutan eragin duen.

Iruñean, 2000ko urtarrilaren 7an

Bozeramailea: Joxe Fernando Barrena Arza

Aparteko orduengatik Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan egini-ko ordainketei buruzko galdera

«EUSKAL HERRITARROK» PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, «Euskal Herritarrok» Parlamentuko Taldeak aparteko orduengatik Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan egini-ko ordainketei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko urtarrilaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

"Euskal Herritarrok" Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babespean, hurrengo galderak egin ditu idatziz erantzun diezazkioten:

Aparteko orduengatik, zer ordainketa egin dira Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan,

1995eko urtarrilaren 1etik gaur arte? Adieraz bitez kasu bakoitzean:

– Ordainketa eguna.

– Zenbatekoa.

– Lanpostua, zer unitate organikori atxikita dagoen eta dirua jaso duenaren lantokia.

– Ordainketa justifikatzen duten arrazoiak.

– Nork proposatzen duen eta nork onesten duen ordainketa.

– Aipatutako epean, guztira, zenbat diru eman zaien "aparteko orduak" kontzeptuagatik dirua jaso duten pertsonen.

– Aipatutako epean, guztira, "aparteko orduak" kontzeptuagatik zenbat diru eman den, atxikipen unitate organiko bakoitzean eta lantoki bakoitzean.

Iruñean, 2000ko urtarrilaren 7an

Bozeramailea: Joxe Fernando Barrena Arza

Produktibitate osagarri gisara Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan eginiko ordainketei buruzko galdera

«EUSKAL HERRITARROK» PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, «Euskal Herritarrok» Parlamentuko Taldeak produktibitate osagarri gisara Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan eginiko ordainketei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko urtarrilaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

"Euskal Herritarrok" Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babespean, hurrengo galderak egin ditu idatziz erantzun diezazkioten:

Produktibitate osagarria gisara, zer ordainketa egin dira Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan,

1995eko urtarrilaren 1etik gaur arte? Adieraz bitez kasu bakoitzean:

- Ordainketa eguna.
- Zenbatekoa.
- Lanpostua, zer unitate organikori atxikita dagoen eta dirua jaso duenaren lantokia.
- Ordainketa justifikatzen duten arrazoiak.
- Nork proposatzen duen eta nork onesten duen ordainketa.
- Aipatutako epean, guztira, zenbat diru eman zaien "produktibitate osagarria" kontzeptuagatik dirua jaso duten pertsonen.

– Aipatutako epean, guztira, "produktibitate osagarria" kontzeptuagatik zenbat diru eman den, atxikipen unitate organiko bakoitzean eta lantoki bakoitzean.

Iruñean, 2000ko urtarrilaren 7an

Bozeramailea: Joxe Fernando Barrena Arza

Fiteroko monasterioko liburutegia eraberritzeko obrei buruzko galdera

JUAN CRUZ ALLI ARANGUREN FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentari jaunak Fiteroko monasterioko liburutegia eraberritzeko obrei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko urtarrilaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentariak, "Nafarroako Demokratikoen Elkargunea" Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezazkioten:

Komunikabideek jakinarazi dute Fiteroko monasterioko liburutegia eraberritzeko obretan exekuzioa atzeratu egin dela, lau hilabete. Eraberritze hori ia azken urtean hasi zen eta 86 milioi pezeta inguruko aurrekontua zuen, baina atzerapen hau eragin duten arazoek kontusaila handitzea ekarri dute. Udalaren ustez, Bianako Printzeak ordaindu behar du hasierako aurrekontuarekiko diferentzia, erakunde horrek sartu baititu aldaketak proiektuan.

Horregatik guztiagatik zera jakin nahi dugu:

1. Berak gainbegiratuak diren proiektuan aldaketak egiten jardun al du Bianako Printzeak eta berak iradoki al ditu Fiteroko Udalak onetsi dituen aldaketak?

2. Jatorrizko liburutegia egiteko duela hiru mende baliatu ziren teknika berak erabili nahi al ditu Bianako Printzeak eraikina berreraikitzeko?

Eta, gainera, hasierako proiektuan agertzen ez diren materialen bidez egin?

3. Sustapen Ministerioak 43 milioi, Nafarroako Gobernuak 30 eta bertako udalak 13 eman behar al dituzte?

4. Aurrekontua handitzeak hasierako zenbatekoak aldatzea ekarri al du? Zer aldaketa eragin ditu?

5. Aldaketak proposatu dituen erakundea izanik, Bianako Printzeak bere gain hartu behar al du aurrekontuaren handitze hau?

Iruñean, 2000ko urtarrilaren 10ean

Foru parlamentaria: Juan Cruz Alli Aranguren

Kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren sistema berria adjudikatzeko moduari buruzko galdera

JOSÉ ANDRÉS BURGUETE TORRES FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, José Andrés Burguete Torres foru parlamentari jaunak kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren sistema berria adjudikatzeko moduari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko urtarrilaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

José Andrés Burguete Torresek, "Nafarroako Demokraten Elkargunea" Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Duela gutxi, Nafarroako Gobernuak adjudikazio prozesu bat burutu du, kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren sistema zaharra aldatu eta Ekonomi Kudeaketaren Sistema eta mekanizazio integrala ezartzeko.

1.- Zer bide erabili da adjudikatzeko?

2.- Zer irizpide baliatu dira adjudikazio horretan?

3.- Zein izan dira adjudikazioaren oinarriak?

4.- Zenbat enpresak hartu zuten parte adjudikazio-prozesuan? Horietako bakoitzaren helbide soziala zein den jakin nahi dugu.

5.- Adjudikazio-hartzailearekin kontratua sinatu bada, esan zenbateko iraupena duen.

6.- Kudeaketa Sistemaren lizitazioan, zein zen zenbatekoa? Eta zein izan da behin betiko prezioa, hots, adjudikazioaren prezioa? Aurkeztutako proposamen guztiak kontratazio-mahaiak nola baloratu dituen jakin nahi dugu, xeheki.

7.- Software hori beste autonomi erkidego batzuetan berrerabil daiteke. Kontuan izan al du Nafarroako Gobernuak aukera hori?

8.- Ba al du Nafarroako Gobernuak software horren jabetzaren ehunekoren bat?

Iruñean, 2000ko urtarrilaren 12an

Foru parlamentaria: José Andrés Burguete Torres

Gordailuetan dauden zenbatekoak eta zein banku-entitatetan dauden itauntzen duen galdera

JOSÉ ANDRÉS BURGUETE TORRES FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, José Andrés Burguete Torres foru parlamentari jaunak gordailuetan dauden zenbatekoak eta zein banku-entitatetan dauden itauntzen duen egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko urtarrilaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

José Andrés Burguete Torresek, "Nafarroako Demokratikoen Elkargunea" Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Nafarroako Gobernuaren kezka nagusietako bat, jakina, Nafarroako Foru Komunitatearen bidegarritasun ekonomikoa izan da eta orain ere bada; kezka hori Gobernuarena ez ezik Nafarroako Parlamentuarena ere bada. Datozen urteetan obra publiko handiak egin behar dira, eta egoera ekonomiko-finantzarioa egokia da obra horiek aurrekontu-arazorik gabe burutu ahal izateko. Egoera horren ezagutza erreal eta puntuala lortzearen, ondorengoa jakin nahi da:

1.- 1999-12-31n Nafarroako Gobernuak gordailuetan dituen zenbatekoak eta zein banku-entitatetan dituen.

2.- Gordailu bakoitzaren baldintzak eta ezau-garriak: epeak, korritu tipok, etab.

3.- Gordailuek azken urte honetan izan dituzten aldaketak.

Iruñean, 2000ko urtarrilaren 12an

Foru parlamentaria: José Andrés Burguete Torres

Beriaingo udalerrian lanean hasi zenetik ISN enpresak sortutako hondakin solidoei buruzko galdera

FERNANDO VIEDMA MOLERO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Fernando Viedma Molero foru parlamentari jaunak Beriaingo udalerrian lanean hasi zenetik ISN enpresak sortutako hondakin solidoei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko urtarrilaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Fernando Viedma Molerok, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentariak, Parlamentuko Erre-

gelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak idatziz erantzun diezaioten:

1999ko azaroaren 26tik aitzina, ISN enpresak Santovenia de Pisueran (Valladolideko herri horretan) dagoen hondakin toxiko eta arriskutsuak tratatzeko plantara errotan ditu bere jardueran sortutako hondakin toxikoak. Aipatutako egun horretan, zehazki, bederatzi tona erotan zituen, azaroaren 3ko galdera bati erantzunez zuen departamentuak adierazi zuenaren arabera. Estatuko Toxikologia Institutuari eskatu zaion txostenaren zain gaudelarik, jakin nahi dugu ea, ISN iazko urtearen hasieran Beriainen kokatu zenetik, Valladolideko zentrorra igorritakoez landa beste hondakin solidorik sortu duen enpresa horrek.

Horregatik, ondorengo galdera eginen dugu, idatziz erantzun diezaguten:

1.- Zenbat hondakin solido sortu du ISN enpresak, Berriaingoa udalerrian lanean hasi zenetik?

Eta, Valladolida igorritako bederatzi tonez gain besterik sortu badu, non ezarri ditu?

Iruñean, 2000ko urtarrilaren 11n

Foru parlamentaria: Fernando Viedma Molero

Ospitaleak eta osasun zerbitzu nahiz zerbitzu soziosanitario publikoak kudeatzeko fundazioen formula juridikoari buruzko galdera

M^a ISABEL ARBONIÉS BERMEJO FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, M^a Isabel Arboniés Bermejo foru parlamentari andreak ospitaleak eta osasun zerbitzu nahiz zerbitzu soziosanitario publikoak kudeatzeko fundazioen formula juridikoari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko urtarrilaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

María Isabel Arboniés Bermejok, "Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua" Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten.

Ministroen Kontseiluan, urtarrilaren 14an, errege dekretu bat aurkeztu zen; horren bidez, osasun sistema publikoaren erreforma garrantzitsu bati ekiten zaio, osasun-fundazio publikoak onesten baitira. Onespen hori alde aurretik guztiz erabakita balego bezala etorri da, Kongresuan ezinbestekoa den eztabaida alde batera utzirik, eta gizarte eragile askok gaitzetsi dute.

Kudeaketa eraginkorragoaren izenean fundazioak sortzeak eten sakona ekarri du; izan ere, alde egiten die zuzenbide publikoari eta kudeaketaren kontrol politikoari –guztiz deszentralizatua baita kudeaketa–, eta ospitaleen esku uzten du aurrekontuaren kudeaketa, erostea, alokatzea, pertsonen zein entitateen dohaintzak bilatzea eta langileen lan kontratuak egitea.

Alabaina, kudeaketa modu honek –alegia, fundazioak– emaitza eskasak izan ditu, ezagutzen

dugunaren arabera. Osasun publikoa fundazioen bidez kudeatu duten erkidegoetan emaitzak txarrak izan dira. Katalunian, urte batzuetan kudeaketa mota hau izan ondoren, zor garrantzitsua pilatu da eta, horren ondorioz, Espainiako Gobernuak, urteko eta pertsonako, zenbateko handiagoa eman behar izan dio erkidego horri gainerako erkidegoei baino; Galizian, bestalde, aurreikusitako etekin ekonomikoak defizit bihurtu dira.

Badira beste esperimendu negatibo batzuk ere. Alcorcónen (Madrilen) protestak eta grebak izan dira kontratudunek dauzkaten lan baldintza negargarriak direla medio; Alziran, berriz, funtzionatzen urtebete daramala, ezagutzen den datu bakarra da eskualdeko 4.560 gaixo igorri behar izan direla Valentziako sare publikoko beste zentro batzuetara, baliabiderik ezagatik eta kudeatzaileen arteko arazoak direla medio.

Nafarroan, fundazioak oraindik ere aratu gabeko esperimendua direnean, Osasun kontseilariak jenduarrean ukatu du halakoak sortu behar direnik. Zernahi dela, zenbait neurri hartu dira, hala nola, osasun kudeaketa deszentralizatzea, ospitaleetan programa-kontratuak ezartzea eta pizgarri ekonomikoak ematea, oinarritzko osasun laguntzan, finkatzen diren aurrezkiak lortzen dituzten osasun zentroei.

Bestalde, Nafarroako osasun publikoan egitura-aldaketak iragarri dira eta, gainera, terminologia komertziala baliatzen da testu eta adierazpenetan. Askok kezkatzen gaituen ikuspegi merkantilista bat erakusten du horrek guztiak. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua ezin da kudeatu merkataritzako enpresa bat bailitzan, emaitza ekonomikoak garrantzitsuagoak direlarik herritarrek daukaten osasuna izateko eskubide konstituzionala baino. Gure ustez, gaixok ez dira osasun-zerbitzuak erosten dituzten bezeroak, guztientzako osasun-laguntza publikoaz gozatze-ko eskubidea duten pertsonak baizik; eta aginte

publikoek bermatu egin behar dute osasun-laguntza hori, irizpide ekonomizistak baino haratago joanez, betiere politika etiko baten baitan.

Horregatik guztiagatik, ondokoa jakin nahi dugu:

1. Kontuan izanik osasun arloko eskumen osoa eta egin izan diren adierazpenak, Nafarroako Gobernuak jarraitu egin behar al du bermatzen Foru Komunitatean ez dela aplikatuko fundazioen formula juridikoa, ospitaleak eta osasun zerbitzu nahiz zerbitzu soziosanitario publikoak kudeatzeko?

2. Programa-kontratua duten ospitaleek gaixoak beste zentro batzuetara igortzen dituztenean, beren aurrekontuen kontura, beren gain hartu behar dute igortze horrek dakarren kostu ekonomikoa. Egungo kudeaketa sistema deszentralizatuan, nola bermatzen du Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak gaixoek behar duten osasun-

tratamentua izanzen dutela eta, ingresaturik dauden ospitaleetan baliabide egokiak ez daudenean, beste ospitale batzuetara igorriko dituztela?

3. Behar diren baliabideak beste ospitale batean edo Nafarroatik kanpo daudenean, ematen al zaie gaixoei eta haien senideei beste tratamentu aukera horien berri?

4. Jakin nahi dugu zer zerbitzu eta programa garatu diren honako arlo hauetan: anbulatorioko kirurgiari laguntzea, ospitalean ingresatu gabeko kirurgia handia eta baliaezintasun handi duten pertsonei etxean jarraipena egitea.

5. Zer konpentsazio ekonomiko ordaintzen ari zaie osasun etxeetako osasun-langileei, kostu ekonomikoak murrizteko?

Iruñean, 2000ko urtarrilaren 17an

Foru parlamentaria: María Isabel Arboniés Bermejo

Tafallako belodromoa estali eta Mairagako Mankomunitateko udal eta kontzejuen kirol azpiegiturak hobetu edo sortzeari buruzko galdera

JOSÉ ANDRÉS BURGUETE TORRES FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, José Andrés Burguete Torres foru parlamentari jaunak Tafallako belodromoa estali eta Mairagako Mankomunitateko udal eta kontzejuen kirol azpiegiturak hobetu edo sortzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko urtarrilaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

José Andrés Burguete Torresek, "Nafarroako Demokraten Elkargunea" Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Herritarrek geroz eta gehiago eskatzen dute kalitatezko kirol instalazioak erabiltzeko aukera izatea. Hori argi ikusten da kirol instalazioak sortu

edo hobetzeko eskariak aurkezteko epeak zabaldu eta Nafarroako udal eta kontzejuek izaten duten kezka ikusita.

Halaber, Nafarroako Parlamentua saiatu da Nafarroako Gobernuaren azpiegitura planak gauzatzeko kontusailak sortzen. Kirol azpiegitura horiek plangintza baten pean egon behar dute eta kostua-erabiltzea erlazioa ere kontuan hartu behar da. Hala ere, ez da irizpide ekonomizista kontuan hartu beharreko bakarra; kontuan hartu behar dena da bizitza kalitatea hobetzea.

Egia da, baita ere, udal horiek eskatutakoa, betiere, eskaera horiek asetzeko eman dena baino gehiago izan dela. Horrela, ahalik eta eskaera gehienei erantzuteko, beharrezkoa da inbertsioak egiteko lehentasun batzuk ezartzea eta inbertsioak arrazionalizatzea.

Horregatik, hauxe jakin nahi dugu:

1.- 1999 urteko Azpiegitura Planean aurreikusita al zegoen Tafallako belodroma estaltzea?

2.- Zein da 1.394 milioiko inbertsioa egiteko arrazoa, zeinetarik 450 milioi Nafarroako Gobernuak jartzea aurreikusi baita?

3.- Mairagako Mankomunitateko udal eta konzejuek zer eskaera egin dituzte 1999 urtean zehar kirol azpiegiturak sortu eta hobetzeko? Horietarik zenbat ukatu dira azken lau urteetan? Horietako bakoitzaren aurrekontua ere nahi dugu.

4.- Zer irizpide erabili du Nafarroako Gobernuak 450 milioi emateko? Gastu oso horretan

parte hartzea ez al da kirol azpiegituretarako obrak finantziazteari buruzko araudiaren aurka-koa?

Iruñean, 2000ko urtarrilaren 20an

Foru parlamentaria: José Andrés Burguete Torres

Errepide sareko puntu beltz eta arriskutsuak desagertarazteari buruzko galdera

JOSÉ ANDRÉS BURGUETE TORRES FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, José Andrés Burguete Torres foru parlamentari jaunak errepide sareko puntu beltz eta arriskutsuak desagertarazteari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko urtarrilaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

José Andrés Burguete Torresek, "Nafarroako Demokraten Elkargunea" Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Herritarrek geroz eta gehiago nahi dituzte kalitatezko zerbitzu publikoak. Hori da ongizatearen estatuaren berme eta helburuetako bat. Beraz,

agintari publikoen kezketako bat da beren ardura-pekko zerbitzuak hobetzea. Aurreko legegintzaldian (1998 urtea), Errepideen Plana onetsi zen; plan horrek, kontusailetan behar adinako dirukopuruak esleituz gero, aukera ematen zuen errepide sare nagusia, eskualdetakoa eta herrietakoa hobetzeko.

Halaber, baten idatz-zati bat puntu arriskutsuak urtean-urtean desagertarazteko, 2005 urtea mugatzat jota. Nafarroako Parlamentuan, egin beharreko lana dugu Gobernuak egiten dituenak kontrolatzea. Horregatik, hauxe jakin nahi dugu:

1.- 2000 urtean egiteko, zein puntu beltz eta arriskutsuri eman die lehentasuna Herrilan Departamentuak?

2.- Zer aurrekontu aurreikusi da puntu beltz horietako bakoitza desagertarazi edo hobetzeko?

3.- Zer diru dago aurreikusita Aurrekontu Orokorretan helburu horiek betetzeko?

Iruñean, 2000ko urtarrilaren 20an

Foru parlamentaria: José Andrés Burguete Torres

Tuterako ospitaleko larrialdi zerbitzua gainezka egon izanari buruzko galdera

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA» PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentuko Taldeak Tuterako ospitaleko larrialdi zerbitzua gainezka egon izanari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko urtarrilaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Juan José Lizarbe Baztanek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin dio Nafarroako Gobernuari idatziz erantzun diezaion ondokoari buruz: Tuterako Ospitaleko larrialdi zerbitzua 1999ko azken egunetan gainezka egon eta herritarrak ezin hartu izanari buruz:

Egia al da 1999ko abenduaren azken egunetan, Eguberrietako jai egun horietan, Tuterako Ospitaleko larrialdi zerbitzua, beste urte sasoi batzuekin konparatuta, ezberdina eta okerragoa izan dela? Uste al du Gobernuak esan daitekeela ez zela herritarrik hartzerik izan zenbait momentutan?

Zergatik gertatu zen, Gobernuaren ustez, epe horretan, larrialdi zerbitzuaren kalitatea okerragoa izatea?

Egia al da Eguberrietako jai egunetan gaixoak hartzeko 30 ohe gutxiago izan dela?

Egia al da egun horietan larrialdi zerbitzuaren bidez ingresatutako gaixoak beranduago pasa zirela geletara, ospitaleko arduradunek langileei buruz hartutako neurrien ondorioz oheak falta zirelako?

Iruñean, 2000ko urtarrilaren 20an

Bozeramailea: Juan José Lizarbe Baztán

G saila:**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA****2000ko ekitaldian foru parlamentariak eta Parlamentuko taldeek jasoko dituzten ordainsariak**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Bozeramaileen Batzarrari entzun eta gero, ondorengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

Ikusi dugu Kontuhartzaitza eta Ekonomi Gaietarako zerbitzuburuak idatzitako txostena, eta, Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua-ren 15 eta 35. artikuluetan xedatuarekin bat, hauxe ERABAKI DUGU:

1. 2000ko urtarrilaren 1etik aitzina, foru parlamentariak eta Parlamentuko taldeek jasoko dituzten zenbatekoak onestea; hauexek, hain zuzen:

A) Foru parlamentarien ordainsariak:

– Dietak: bilkura batera etortzeagatik 15.000 pezeta jasoko dituzte foru parlamentariak, Iruñean bizi badira edo Iruñetik euren bizilekura gehienez ere 25 kilometro badaude.

– Dietak: bilkura batera etortzeagatik 17.800 pezeta jasoko dituzte foru parlamentariak, Iruñetik euren bizilekura 25 kilometro baino gehiago badaude.

B) Parlamentuko taldeen ordainsariak:

a) Dirulaguntza finkoa: 859.100 pezeta hilabete, talde bakoitzarentzat.

b) Parlamentari kopuruaren arabera dirulaguntza: ondorengo zenbatekoen batura izanen da:

– Funtzionamendu gastuak: 155.000 pezeta hilabete, parlamentari bakoitzeko.

– Antolamendu gastuak: 118.400 pezeta hilabete, parlamentari bakoitzeko.

– Langileen eta jardueren gastuak: 443.000 pezeta hilabete, bost parlamentari; edo zenbateko horren zatikia.

2. Ezartzea dieta bakoitzean 11.000 pezeta izanen direla gastuak ordaintzeko, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeko 14.2.b) artikuluan xedatutakoa aplikatzerakoan.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2000ko urtarrilaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

«Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentuko Taldearen izen aldaketa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Bozeramaileen Batzarrari entzun eta gero, ondorengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

Ikusi dugu "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentuko Taldearen idazkia, non taldearen izena aldatu dutela adierazten baitute; aurrerantzean "Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua (IUN-NEB)" izanen da. Horren

ondorioz, hauxe ERABAKI DUGU:

1. Parlamentuko talde horren izen aldaketaren berri jaso dugula adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2000ko urtarrilaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués